

















































TELEBISTA ZUZENEAN			IRRATIA ZUZENEAN	
				
				
				
				
				
				
				
				
				
				

ZUZENEKO ATARIA

FAKTORIA ZIENTZIA

## EHUko Informatika Fakultateko IXA taldeak Google beka bat jaso du

2019/03/29

Laguntzaile birtualak gero eta erantzun konplexuagoak emateko gauza izan daitezen ari dira lanean IXA taldean. Ingelesez ez ezik euskaraz ere aurrera pausoak emateko erabiliko dute jasotako dirua.



4:21 min

Alexa laguntzaile birtuala

[Partekatu](#) 25

Alexa eta Siri bezalako **laguntzaile birtualak** ondo moldatzen dira erantzun zehatzak dituzten galderekin, baina adibidez errezeta batekin laguntzea edo **aholku orokorragoak ematea** askoz ere konplexuagoa da. Erronka horri heldu dio **IXA taldeak, EHUko Informatika Fakultatean**.

Nazioarteko eta punta-puntako ikerketa alorra da, eta gailuek ondo funtzionatzen duten aztertu eta neurtzeko bidean, ingelesa da baliatzen duten hizkuntza. Baina Ixa Taldean **euskarara ere ekarri nahi dute** hori guztia, eta webgune bat jarri dute martxan horretarako, euskaldunok parte har dezagun eta bertan elkarriketa laburrak grabatu ditagun, eta hartara, makinak gure hizkuntzan ere ikas dezan: [ixa.eus/lagundu](http://ixa.eus/lagundu).

